

Loreei hizketan

Etxeko lanak?

Hemen dituzu etxeko lan batzuk. Lotu irudiak lanekin, zenbakia idatziz. Lan bat sobera dago, zein?

1



2



3



4



5



6



7



8



9



10



11



12



ZENBAKIA**ETXEKO LANAK**

	ontziak garbitzea
	autoa garbitzea
	ohea egitea
	zaborra ateratzea
	janaria prestatzea
	txakurra ateratzea
	arropa garbitzea
6	xurgagailua pasatzea
	mahaia jartzea
	erratza pasatzea
	loreak zaintzea
	arropa plantxatzea
	hautsak kentzea

Entzun elkarrizketa. Aukeratu erantzun zuzena.

1. Zertan ari da Amaia?

- Loreak zaintzen
- Loreei begira
- Loreei errieta egiten

2. Lagunen galderen aurrean, Amaia...

- triste jartzen da
- poztu egiten da
- haserretu egiten da

3. Zer espresio erabiltzen du Amaiak haserre dagoela adierazteko?

- Laztana!
- Geldi hemen!
- Ez adarrik jo!

Amaiak azaltzen die mutilei nola zaindu loreak. Entzun elkarrizketa eta idatzi zein den mutilen erantzuna?

.....

Erreparatu hizkuntzari

Zerbait nola egiten den esateko

Aditza: agintera edo behar erabili

Denborazko loturak: hasteko, lehenbizi / gero, ondoren / azkenik, bukatzeko

Adibidez, platerak ontzi-garbigailuan garbitzeko:

- ✓ Hasteko, makinan sartu aurretik hondarrak kendu plater eta ontzietatik.
- ✓ Ondoren, sartu ontziak barruan, eta ondo jarri.
- ✓ Eta bukatzeko, martxan jarri ontzi-garbigailua. Itxaron bukatu arte eta lehortzen utzi makina barruan ordu-erdi bat.

Ura bota behar zaie

Nola zaindu behar dira loreak? Irakurri elkarrizketa hau eta azpimarratu **instrukzioak**.

AMAIA.- lore hauek ez dituzue aspaldian zaindu. Lehenbizi, belar txarrak kendu. Horrela. Hemengo hauek... oso ondo, bai? Ur pixka bat bota behar zaie.

JOSU.- Ura ere bai.

AMAIA.- Hemendik ur pixka bat... Ez dugu ito behar landarea, bestela... Honi ere ez diogu bota. Oso ondo. Ongarria ere bikain-bikaina erosi dut. Begira, pixka bat hemendik, horrela beste pixka bat, zure lore zuri eder horiek ateratzeko. Hori da. Ondoren, hitz egitea, hitz egitea oso garrantzitsua...

ERANTZUNAK

Etxeko lanak.

- 1- ontziak garbitzea 2- arropa garbitzea 3- autoa garbitzea 4- zaborra ateratzea
5- erratza pasatzea 6- xurgagailua pasatzea 7- arropa plantxatzea 8- janaria
prestatzea 9- hautsak kentzea 10- txakurra ateratzea / paseatzea 11- ohea egitea
12- mahaia jartzea

Sobera dagoena: loreak zaintzea

Aukeratu erantzun zuzena

- 1- a
2- c
3- c

Mutilen erantzuna: Poliki-poliki, alde egiten dute biek, Amaiaren azalpenei kasurik egin gabe.

Bideoaren transkripzioa

AMAIA.- Mendian, lar artean, aurkitzen da loretxo bat... Ai! Belar txarrak kenduko dizkizut, bai? Horrela... eta horrelaxe. Begira zer ondo! Orain ur pixka bat. Eta ongarri bikaina erosi dizuet. Horrela hobeto, ezta? Oso ondo.

AMAIA.- Ai! Orain zure txanda da. Lore eder-ederrak ikusi nahi ditut, e? Mimo guztiak eman dizkizut, eta badakizu, zure lore zuriak ikusi nahi ditut!

JOSU.- Amaia!

AMAIA.- Ui! Kaixo!

OIER.- Kaixo, Amaia. Zertan ari zara?

AMAIA.- Ikusten duzue, loreak zaintzen.

JOSU.- Bai, bai, ikusten dugu, baina norekin aritu zara hizketan?

AMAIA.- Norekin izango da, ba? Loreekin.

OIER.- Kar-kar! Erotu egin zara?

AMAIA.- Aizu, Oier, adar-jotzerik ez, e, mesedez. Loreak oso pozik daude nirekin, etxe honetan bizi naizelako. Sekula ez dituzue zaindu, eta maite-maite egin behar zaie.

JOSU.- Bai, ados. Laztanak, ura, ongarria... baina haiekin hitz egitea!

AMAIA.- Bai horixe! Gure amonak horixe egiten zuen. Loreak pozik egoteko: mimoak eta goxo-goxo tratatzea, hortxe trikimailua.

JOSU.- Zure familian ez zaudete ondo!

AMAIA.- Ikusiko duzue, hemendik aurrera eder-ederrak aterako dira loreak.

OIER.- Zuk badiozu...

AMAIA.- Bueno, zuek zer? Adarra jotzera etorri zarete ala afaria prestatzera? Nik ezin dut dena egin, e?

JOSU.- Oraintxe goaz. Garagardo bat nahi duzu?

AMAIA.- Ez, ez. Oraindik ordu-erditxo bat pasatu behar dut hemen.

JOSU.- E, Amaia, zertan ari zara? Ikusten badugu, hurrengoan Oierrek eta nik zainduko ditugu.

AMAIA.- Zer? Berriz ere adarra jotzen? Baina begira, azaldu egingo dizuet. Etorri.

OIER.- Ez, lasai. Entsalada prestatzera noa.

AMAIA.- Ez, ez. Zu geldi hemen nik esan arte. Hurbildu.

AMAIA.- Lore hauek ez dituzue aspaldian zaindu. Lehenbizi, belar txarrak kendu. Horrela. Hemengo hauek... oso ondo, bai? Ur pixka bat bota behar zaie.

JOSU.- Ura ere bai.

AMAIA.- hemendik ur pixka bat... Ez dugu ito behar, e, landarea bestela... Honi ere ez diogu bota. Oso ondo. Ongarria ere bikain-bikaina erosi dut. Begira, pixka bat hemendik, horrela beste pixka bat, zure lore zuri eder horiek ateratzeko. Hori da. Ondoren, hitz egitea, hitz egitea oso garrantzitsua...